# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 147

*EBAZPENA, 2020ko abenduaren 21ekoa, Kulturako sailburuordearena, 2020-2022 aldirako Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntzak emateko dena.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko uztailaren 22ko Aginduaren bidez (irailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 171. zk.), Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntzen deialdia arautu zen 2020-2022 aldirako, eta dirulaguntza horiek emateko araubidea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 9. artikuluaren arabera, 2020ko urriaren 1ean amaitu zen.

Aginduaren 14. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu eta eskabideak aztertu ondoren, laguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2020ko azaroaren 26an, eta, horrekin batera, aginduaren 16. eta 17. artikuluen araberako balorazio-irizpideak ezarri zituen.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 18. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean adierazitako eskabideak, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei bertan adierazitako dirulaguntzak ematea.

Hirugarrena.– III. eranskinean zerrendatzen diren pertsona eta erakundeei eskatu duten dirulaguntza ukatzea, behar besteko puntuaziorik lortu ez dutelako.

Laugarrena.– Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mendean geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mendean ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2022ko abenduaren 31n bukatuko da, dirulaguntzak arautzen dituen Aginduaren 7. artikuluarekin bat etorriz. Dena dela, diruz lagundutako proiektuek 2020ko urtealdian hasi behar dute edo dagoeneko hasita egon behar dute.

Emandako dirulaguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, aginduaren 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, data hauetarako justifikatu beharko direla:

– 2020an gauzatzekoak diren jarduerak: 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen.

– 2020-2021 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2020an gauzatutako jarduerak 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen; 2021ean gauzatutako jarduerak, berriz, 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen.

– 2020-2022 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2020an gauzatutako jarduerak, 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen; 2021ean gauzatutako jarduerak, 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta 2022an gauzatutako jarduerak, 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko, eskabidearekin batera aurkeztu den aurrekontua hartuko da ardaztzat, eta, horrekin batera, aginduaren 24. artikuluan ezarritako gainerako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu honen babesean eman beharreko dirulaguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

– Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren herena ordainduko da, behin 22.1 artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

– Gainerakoa ebazpen honen II. eranskinean ezarritako zatikatzearen arabera ordainduko da, gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat.

## AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 21a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

I.1.– Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta ez dauden eta Babes Bereziko edo Ertaineko Kultura-Ondasun deklaratzeko espedienterik ez duten elementuetan esku hartzeagatik. Baldintza hori Aginduak eskatzen du:

| Eskatzailea | Jarduera |
|---|---|
| Lekeitioko Udala | Proyecto de ejecución para la puesta en valor y recuperación de la isla Garraitz |
| Arma Plaza Fundazioa | Las últimas fortificaciones de Hondarribia: puesta en valor, adecuación y difusión de la Organización Defensiva de los Pirineos |
| Saratxoko Administrazio Batzarra (Amurrio) | Renovación de los pretiles del puente de Derendano-San Nicolás |
| Itsaspeko Ikerketarako Kultur Elkartea INSUB | Urpeko Ondarea: Investigación y puesta en valor del patrimonio cultural subacuático del País Vasco |

I.2.– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 3.3.a) eta e) artikuluan jasotako kontserbazio-, hobekuntza-, zaharberritze- edo hondeaketa-jarduketek osatzen dituzte nagusiki, eta Lurralde Historikoetako Foru-Aldundiei dagokie haien eskumena, Aginduaren 1. artikuluan aurreikusten den bezala.

| Eskatzailea | Jarduera |
|---|---|
| Parroquia de la Asunción de Nuestra Señora de Bermeo | Reparación de cubierta de la Iglesia de Santa María de Bermeo |

# II. ERANSKINA

## ONARTUTAKO ESKABIDEAK

| Eskatzailea | Jarduera | Punt. | Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa | Emandako zenbatekoa | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Angulo Pérez de Nanclares, Antonio Valentín | Adecuación de recorridos visitables en el Palacio Zambrana-Herrán en Salinas de Añana | 76,75 | 357.550,00[2] | 174.394,00 | 58.131,33 | 58.131,33 | 58.131,34 |
| Abar Kultur Elkartea | Puesta en valor de las agrupaciones megalíticas de Egiar, Mulisko Gaina, Oindolar y Tontortxiki, en las estaciones megalíticas de Oiartzun, Onyi-Mandoegi, Belabieta e Igeldo | 80,00 | 25.503,00[2] | 14.190,00 | 4.730,00 | 4.730,00 | 4.730,00 |
| Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (AVPIOP) | Difusión del patrimonio Industrial mueble de la CAPV | 72,00 | 30.350,00[2] | 15.198,00 | 5.066,00 | 5.066,00 | 5.066,00 |
| Añanako Udala | Puesta en valor de la Muralla de Salinas de Añana y entorno de San Cristóbal | 79,00 | 343.519,00[1] | 175.844,00 | 58.614,67 | 58.614,67 | 58.614,66 |
| Artziniegako Udala | Adecuación del edificio municipal catalogado para su puesta en funcionamiento | 79,00 | 242.605,55[3] | 133.478,00 | 44.492,67 | 44.492,67 | 44.492,66 |
| Barakaldoko Udala | Proyecto de mejora de firmes, luminarias y equipamiento de la finca Munoa | 66,50 | 444.559,18[1] | 191.958,00 | 63.986,00 | 63.986,00 | 63.986,00 |
| Barrundiako Udala | Puesta en valor y difusión patrimonial del Palacio y Castillo de Gebara | 75,91 | 39.655,48[1] | 20.936,00 | 6.978,65 | 6.978,65 | 6.978,70 |
| Debako Udala | Historiaurreko bailara | 77,90 | 203.280,00[1] | 91.679,00 | 30.559,67 | 30.559,67 | 30.559,66 |
| Galdakaoko Udala | Bilboko Burdin Hesiaren ondarea konserbatzeko, zaintzeko eta balioan jartzeko proiektua Bekea-Bekelarre zonaldean | 82,00 | 65.400,00[2] | 27.201,00 | 9.067,00 | 9.067,00 | 9.067,00 |
| Getariako Udala | Recuperación de la zona occidental del Casco Historico. Fase 1 | 70,00 | 169.649,50[1] | 82.594,00 | 27.531,33 | 27.531,33 | 27.531,34 |
| Getxoko Udala | Puesta en valor de los pabellones noroeste y suroeste de las Galerías de Punta Begoña | 92,00 | 1.135.746,20[1] | 181.680,00 | 60.560,00 | 60.560,00 | 60.560,00 |
| Hondarribiko Udala | Consolidación y conservación de los torreones IV y V del Monte Jaizkibel | 77,78 | 140.662,47[1] | 63.986,00 | 21.328,67 | 21.328,67 | 21.328,66 |
| Kuartangoko Udala | Puesta en Valor de la Estación Megalítica de Kuartango | 77,00 | 260.771,86[1] | 139.653,00 | 46.551,00 | 46.551,00 | 46.551,00 |
| Lekeitioko Udala | Mendieta ontziolari atxikitatutako etxea birgaitzeko exekuzio-proiektua | 77,00 | 29.171,00[1] | 15.622,00 | 5.207,33 | 5.207,33 | 5.207,34 |
| Laudioko Udala | Ermuko Andra Mariko indusketa arkeologikoak estaltzeko eta irisgarritasuna hobetzeko lanak, balioan jartzeko | 83,47 | 36.357,48[4] | 22.272,00 | 7.424,00 | 7.424,00 | 7.424,00 |
| Navaridasesko Udala | Rehabilitación integral del Palacio Casa Sodupe y Centro de Interpretación del poblado del Alto de Castejón | 85,00 | 558.496,17[5] | 191.958,00 | 63.986,00 | 63.986,00 | 63.986,00 |
| Oiartzungo Udala | Arizmendienea Urdinola eraikuntzaren birgaikuntza eta balioa nabarmentzea | 82,80 | 144.399,59[6] | 92.396,00 | 30.798,67 | 30.798,67 | 30.798,66 |
| Ortuellako Udala | Reforma de la Casa Consistorial de Ortuella y Urbanización de la Plaza 1.º de Mayo | 63,00 | 102.051,15[1] | 44.715,00 | 14.905,00 | 14.905,00 | 14.905,00 |
| Otxandioko Udala | Plaza Frontoiaren berrerabilpena, Plaza erabilgarri bihurtzea eta balioan jartzea | 77,28 | 338.639,38[1] | 182.013,00 | 60.671,00 | 60.671,00 | 60.671,00 |
| Sopuertako Udala | Territorio y patrimonio. Torres banderizas de Sopuerta | 78,24 | 18.513,00[1] | 9.926,00 | 3.308,67 | 3.308,67 | 3.308,66 |
| Trucios-Turtziozko Udala | Restauración y puesta en valor de la Estación megalítica de Armañón | 84,12 | 85.014,90[1] | 48.639,00 | 16.213,00 | 16.213,00 | 16.213,00 |
| Urduña/Orduñako Udala | Regeneración zona intramuros del recinto fortificado junto a Iglesia Andra Mari | 72,00 | 100.159,05[1] | 50.156,00 | 16.718,67 | 16.718,67 | 16.718,66 |
| Zallako Udala | Resignificación del Conjunto Monumental de la Mella | 74,54 | 78.969,44[1] | 39.048,00 | 13.016,00 | 13.016,00 | 13.016,00 |
| Zallako Udala | Consolidación y puesta en valor del Castro de Bolunburu en Zalla | 85,00 | 75.000,00[1] | 35.992,00 | 11.997,33 | 11.997,33 | 11.997,34 |
| Zamudioko Udala | Puesta en valor y difusión de los Conjuntos Monumentales de Zamudio | 72,00 | 57.211,53[7] | 35.281,00 | 11.760,33 | 11.760,33 | 11.760,34 |
| Zamudioko Udala | Kadaltso baserria berreraikitzea eta erabilera aldatzea | 65,00 | 25.952,16[1] | 11.732,00 | 3.910,67 | 3.910,67 | 3.910,66 |
| Zumaiako Udala | Karmeldar Oinutsien San Jose Komentuaren zaharberritzea | 70,21 | 201.363,68[1] | 98.328,00 | 32.776,00 | 32.776,00 | 32.776,00 |
| Arkeolan Fundazioa | Puesta en valor y difusión de la Ermita de Santa Elena de Irún | 70,00 | 116.432,09[2] | 56.685,00 | 18.895,00 | 18.895,00 | 18.895,00 |

| Eskatzailea | Jarduera | Punt. | Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa | Emandako zenbatekoa | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Antoñanako Administrazio-Batzarra | Restauración de la Casa-Torre de los Hurtado de Mendoza | 75,00 | 50.765,55[1] | 26.481,00 | 8.827,00 | 8.827,00 | 8.827,00 |
| Arkaiako Administrazio-Batzarra | Puesta en valor y difusión del Yacimiento arqueológico de las Termas de Arkaia | 87,00 | 133.100,00[1] | 80.537,00 | 26.845,67 | 26.845,67 | 26.845,66 |
| Santa Cruz de Campezoko Administrazio-Batzarra | Consolidación del entorno de la Iglesia de la Asunción | 67,36 | 18.366,07[8] | 8.805,00 | 2.935,00 | 2.935,00 | 2.935,00 |
| Zubia Azkue, Aitor | Oñatiko Kale Zaharra 47 | 80,00 | 57.236,59[9] | 36.623,00 | 12.207,67 | 12.207,67 | 12.207,66 |
| GUZTIRA | | | 5.686.451,44 | 2.400.000,00 | 800.000,00 | 800.000,00 | 800.000,00 |

[1] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean (BEZ barne) sartutako jarduera guztiak.

[2] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean jasotako jarduera guztiak, BEZik gabe.

[3] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan jasotako jarduera guztiak, BEZ barne, estalkia konpontzeko obrak izan ezik, ez baitago diruz laguntzeko moduko kontzeptuen artean 2.a) artikuluan jasotako berrerabilpen-jardueran.

[4] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan jasotako jarduera guztiak, BEZ barne, «Ezustekoei» dagokien partida izan ezik, ez baitago definituta.

[5] Dirulaguntza jasoko dute Poblado de Alto Castejón ezagutzearekin lotutako jarduerek eta Jauregiko obrei buruzko jarduerek, baldin eta 2.b) artikuluan berrerabilpen-jarduerarako ezarritako diruz laguntzeko moduko kontzeptuekin bat badatoz (berrerabiltzeko eta obrak zuzentzeko asmoz, eraikina egokitzeko barneko instalazioak eta esku-hartzeak), BEZ barne.

[6] Diruz lagunduko dira 2020an gauzatutako obrak (azken likidazioa) eta obra-zuzendaritza, BEZ barne, baldin eta berrerabiltzeko jarduerarako 2.b) artikuluan ezarritako diruz lagun daitezkeen kontzeptuei badagozkie.

[7] Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontuan jasotako hedapen- eta balio-jarduera guztiak, BEZ barne, galtzadari buruzko «ebaluazio arkeologiko eta kartografikoa» kapituluko zatia izan ezik, ez baita eraginkortzat jotzen garbiketa hura aztertzeko, sendotzeko, zaharberritzeko eta mantentzeko planik gabe. Era berean, ez dira diruz lagunduko honako kapitulu oso hauek: «Bilbo-Gernika Bidea berreskuratzea», egungo trazaduran aldaketa bat dakarrelako, erromesak leku erosoago batetik desbideratzeko; «Gidak prestatzeko tailerra», ez baita diruz laguntzeko moduko jarduera, eta «Hedapenerako material digitala», ez baitauka helburuari eta kalitateari buruzko informaziorik.

[8] Dirulaguntzaren xede izango dira aurkeztutako aurrekontuan sartzen diren balioa emateko jarduera guztiak, BEZ barne, dirulaguntzaren eskaerarako balioetsitako memoria egitea izan ezik.

[9] Diruz lagunduko dira aurretiko azterlanak eta horietarako ezinbestekoak diren jarduerak, bai eta lotizazio-erregimena mantentzeko jardueraren kostuaren % 15 ere, 6. artikuluan aurreikusten den bezala, BEZik gabe.

# III. ERANSKINA

# UKATUTAKO ESKABIDEAK

III.1.– Agindu arautzailearen 15. artikuluan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa (60 puntu) ez lortzeagatik:

| Eskatzailea | Jarduera | Puntuazioa |
|---|---|---|
| Abar Kultur Elkartea | Puesta en valor de los megalitos del dolmen de Pozontarriko Lepoa y diversos cromlechs de las agrupaciones de Gianleku y Egiar | 55,00 |
| Bermeoko Udala | Intxausti kalearen egokitzapena | 52,13 |
| Laguardiako Udala | Patrimonio virtual en el Castillo y Murallas de Laguardia | 54,50 |
| Valle de Trápaga-Trapagarango Udala | Recuperación del caserío Aiestaran para uso equipamental. Fase 3 | 57,90 |
| Zallako Udala | Puesta en valor de la Ermita de San Pedro de Zarikete. Aula de las ermitas | 49,50 |
| Contemporary Platform AIE | Dantz Point 2020 | 54,01 |
| Varona Beltrán de Salazar, Rodrigo María | Puesta en valor de los jardines de la Torre de los Varona | 49,50 |